

2019ko agorrilaren 26ko Herriko Kontseiluaren akta

Hor zirenak: ECHEVERTZ, ETCHART-DUHALDE, OXARANGO, GARY andereak eta GASTAMBIDE, BISCAY, HERNANDEZ, ETCHEGARAY, SOULIGNAC, BARNECHE jaunak

Ezin etorria jakinarazia zutenak: ETCHEVERRY eta BARBIER andereak

Hor ez zen: ETCHEBERRY jauna

Aiherrako Herriko Kontseilua 2019ko agorrilaren 26an bildu da, Herriko Etxeko Biltzar aretoan arratseko 20:30etan eta honakoak erabaki ditu.

1. Enplegu baten lan denboraren aldatzea

Enplegu baten asteko lan denboraren aldatzea 2019ko irailaren 1etik goiti. 18:00tik 16:20ra pasatzea (hots -%10, beraz batzorde teknikoaren onespenerik ez da behar).

Herriko Kontseiluak bere onespenera ematen du zentzu horretan ordenantza baten hartzeko

2. Lehen mailako laguntzaile teknikari nagusi postu baten sortzea

Jean-Michel Goyhenetche jauna orain bigarren mailako laguntzaile teknikari nagusi da eta lehen mailako laguntzaile teknikari nagusira aitzinatzea.

Herriko Kontseiluak bere onespenera ematen du zentzu horretan ordenantza baten hartzeko

3. Herriko Etxeko idazkari lan postu baten sortzea

Lan postua urtarrilaren 1ean administrazio laguntzaile graduan sortuz, langilea titular bilaka daiteke konkurtsorik egin gabe (urte batez funtzionario ikastun izanen da)

Erredaktore konkurtsoko probak: idatzizkoa 2019ko urriaren 3an, ahozkoa 2020ko otsaila bukaeran. Konkurtsoa ukaten badu, erredaktore graduan izendatua izanen da (ikastun urte batez), eta ez da berriz erabakirik hartu beharko postua jadanik irekia baita.

Herriko Kontseiluak bere onespenera ematen du zentzu horretan ordenantza baten hartzeko

4. Arauzko segurantza kontratuen eraberritzea: lurralde langileen gizarte geriza

Lurralde kolektibitateek eta egitura publikoek nahitaez ordaindu behar dizkiete beren langileei medikuntza gastu eta artak laneko istripu baten ondotik, eguneroko ordain-sariak, eritasun edo amatasun geldialdietan, eta kapital bat heriotza gertatzen bada...

Kolektibitateek "arauzko" arrisku horientzako segurantza har dezakete beren langileentzat, segurantza kontratu baten bidez.

Kudeaketa zentroek arauzko segurantzazko talde-kontratuak eskain ditzakete, kolektibitateak eta egitura publikoak diru-arrisku horiez babesteko (heriotza, laneko istripua, eritasun profesionala, eritasun geldialdi luzea, oporraldi luzea, eritasun arruntak, amatasuna...).

Eskaera publikoen arauak betetzeaz gain, talde-bide horrekin arriskuak mutualizatzen ditugu eta ondorioz sari eta berme hobek erdiesten.

Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroak talde-kontratu horientzako deialdi publikoa plazaratuko du, eskaintzak lehia ezarri eta kontratuak berritzeko.

Oroitarazten dugu herriak Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroaren arauzko talde-kontratuak hartu dituela 2017/2020 aldirako:

- talde-kontratu bat CNRACL-i loturiko lurralde funtzionarioen arriskuentzat (astean gutenez 28 oren egiten duten funtzionario ikastun eta titularrak)
- eta/edo talde-kontratu bat IRANTEC-i loturiko eta erregimen orokorreko langileen arriskuentzat (astean gutenez 28 oren egiten duten funtzionario ikastun eta titularrak eta zuzenbide publikoko kontratupekoak)

Horiek horrela, lehiatzeko deialdi publikoa egitera behartua denez segurantzazko kontratuentzat, herriak Departamenduko Kudeaketa Zentroak bideratu duen lehia deialdi prozedura baliatzeko interesa erakusten du.

Herriko kontseilua ados da Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroari mandatu horren emateko.

5. Hilerria: hilobien prezioaren finkatzea

Oraingoan hilobiak beren lekuan dira eta horien erabilpena arautu behar dugu. Eztatidatu eta, herriko kontseiluak honako prezioak eta araudia finkatzen ditu:

- lekuak 30 edo 50 urterako emanen dira kontzesioan,
- kontzesioan emanen diren lekuen prezioak honelakoak izanen dira:
 - 30 urteko lekua soilik: 10 €
- hilobiak 300 €tan izanen dira....
- kontzesioaren eraberritzeko, epea bukatu eta 2 urte barne egin beharko da eskaera,
- eraberritzearen prezioa momentu horretan indarrean den prezioa izanen da,
- Herriak lekuak berreskuratzen ahalko ditu, kontzesioa bukatu eta bi urteko epean ez bada eraberritze eskaerarik egin.

Araudi orokorra heldu den herriko kontseilu batean eztabaidatuko dugu

6. Egur mozteen oinarria: herriko oihanean 2020ean oinarritzat hartuko diren egur mozteak

Oihanen Erregimen peko kolektibitateen oihanen kudeaketa dela-eta, Frantziako Oihanen Bulego Nazionalak (ONF) urtero jakinarazi behar dio jabe bakoitzari zenbat egur mozte proposatzen duen, egur mozteen oinarria osatzeko. Mozketa horiek kudeaketa programaren baitan aurreikusiak dira (arauzko mozketak) eta bestalde, arauz kanpokoak ere egin daitezke baina ONF-ak ikuskatu behar ditu eta arrazoi tekniko bat ukan behar dute.

ONF-ak honako mozqueta kopuruak proposatzen dizkigu 2020 urterako, Oihanen Erregimeneko herriko oihanentzat.

Eremua azken mozqueta kanpainarena bera da.....

Kudeaketa unitatea	Azalera	Arauzko mozqueta bai /ez	Zertarako
3 p	3.05 ha	bai	Su egurra
2p	0.35 ha	bai	Su egurra

Herriko kontseiluak onespena ematen dio ONF-i proposatu duen mozqueta programarentzat.

7. Ipar Euskal Herriko ToLFEP-ekiko (EPFL) harremanen bilakaera

Ipar Euskal Herriko ToLFEP-aren 2019ko otsailaren 8ko Administrazio Kontseiluak erakundearen Eskuhartze Araudia onetsi zituen xedapenen betetzeko, bereziki proiektuak eramateari eta kolektibitateei fakturatzeari dagokienez, aurretik zerrendatu diren proiektuak eramateko hitzarmenak deuseztatu behar ditugu eta « CENTRE BOURG » deituriko funtsen ekintzarako hitzarmen berriarekin ordezkatu. Izan ere, ToLFEP-ak « CENTRE BOURG » proiektuan esku hartzeko hitzarmenezko harremanak globalizatu nahi ditu. Ondorioz, funtsei buruzko proiektuen eramateak hitzarmen bakar batean bilduak dira.

Laburbilduz, « CENTRE BOURG » ekintzaren hitzarmenak honakoak zehazten ditu:

- urteko kuoten ordaintzeko fakturazioa ez dela urtea betetzean egingen baizik eta apirila edo maiatzean,
- hartu dituen ondasunak esku hartze sektore bakoitzeko epeetan eramanez dituela, hitzarmenaren arabera: 8 urte « BOURG 1 » sektorean, 20 urte « MAISON BELZTAGITEA » sektorean eta 20 urte « GOYENETCHEA » sektorean,

- proiektuen eramate gastuak (ZK %1) ordaintzekoa gelditzen den kapitalean erantsiko direla urtero,
- proiektuaren eramatea bukatzean, ToLFEP-ak eskuratu dituen ondasunak zuzenki obra agintariaren esku ezarriko ditu (deialdi baten ondotik izendatutako obra agintaria).

Herriko kontseiluak baiezkua ematen dio ToLFEP-aren eskaerari

Bestelako gaiak

DENCI ikerketa

Gure ekimenez, APGL-i eskatu diogu DENCI ikerketa baten egitea (herriko suhiltzaile iturrien diagnostiko baten egiteko). Kontseilari guztiek laburpen bat ukanen dute heldu den kontseilu batean erabakia har dezagun.

2019ko inbertsioei buruz* - oroigarria, heldu den aldaketa erabaki aitzin –

Joko-eremuko obren bukaera

Errepide eta sareen programa

Herriko jantokiaren handitzea: ikerketa bidean da, deialdia irailean eta lanen abiatzea segidan.

Gozategia-ko bi saltokien antolatzeko lanak (bata salmentarako eta bertzea alokairurako).

Prozedura egokituko deialdia abiatu beharra

Herriko Etxearen elbarrituentzako irisgarritasuna-ikerketa eta proiektuaren hautatzea 2019 bukaeran-abiatzea 2020an

Seinale panelak toponimia lanaren ondotik.

Pilota plazako zolaren konpontzea eta tindatzea.

Aurrekontua egokitzeko erabaki bat hartu beharko dugu gure finantza egoera inbertsio berriei egokitzeko.

Iraileko kabalkadaz pundua

Urraspide guztiak eginak dira Suprefekturan eta sokorri zerbitzuetan. Zirkulazio ordenantza bat hartua da.

Eremuen plano zehatza egin dugu, baita aparkalekuentzat eta ikusleen joan-etorrientzat.

Ahal dugun guztia egiten dugu antolatzaileak laguntzeko.